



HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

ZERBITZU ZUZENDARITZA

EUSKARA ATALA 2018-03-09

AURKIBIDEA

SAILETAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEEN LEGE-OINARRIA

1.1 ZEREGINA	3
1.2 LEGE-OINARRIA	3
2. SAILEAN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK EZARTZEKO BEHARRA	6

CRITERIOS LINGÜÍSTICOS/TRABAJO Y JUSTICIA

HELBURUAK	7
1-AHOZKO KOMUNIKAZIOA	8
2-IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA	9
3-EUSKARA NABARMENTZEKO NEURRIAK	10
4-ITZULPEN IRIZPIDEAK	10
5-ERREGISTROA	11
6-ETENGABEKO PRESTAKUNTZA OROKORRA	12
7-BILERAK	12
8-EKITALDI PUBLIKOAK	13
9-PRENTSAURREKOAK	13
10-SARE SOZIALAK	13
11-TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK	14
12-INTERNET/INTRANET	14
13-ERROTULAZIOA/OHARRAK	14
14-EUSKARRI INPRIMATUAK/PAPER GAUZAK	15
15-ARGITALPENAK	15
16-IRAGARKIAK/PUBLIZITATEA	15
17-DIRU-LAGUNTZAK	15
18-ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOAK	15

SAILETAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEEN LEGE-OINARRIA

1. ZEREGINA

_Hizkuntza irizpideak berebiziko tresna dira Eusko Jaurlaritzako sailen hizkuntza politika arautu eta zuzentzeko; horrez gain, gidalerrotzat erabili ohi dira euskararen erabilera normalizatzeko plangintzaldiak diseinatzeko orduan.

1.2. LEGE-OINARRIA

_ 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena..

18.c) ETA 18.d) artikulua

“18. atala.– Entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntz politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

c) ondo zehaztuko da zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntz paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntz helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.

d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen”.

-Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko. IV Plangintzaldia (2008-2012).

3.6 atala(19-20. orrialdeak) eta A Eranskina.



“3.6 atala.. Erabilera-plan honen lehen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira. 86/1997 Dekretuaren 18. artikuluko c) eta d) puntuetan esaten da erabilera-planetan zehatz-mehatz azalduko dela euskara nola erabili eta tratatuko den zenbait esparrutan. IV. Plangintzaldi honetarako, beraz, araubide orokor bat prestatu da, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztientzako hizkuntza-irizpide nagusiak finkatzeko. Irizpide nagusi horiek helmuga erakusten dute; jakina, irizpide horiek sail bakoitzak bere egoerara ekarri, egokitu eta erabilera-planetan zehaztu eta gauzatuko ditu. Sailak irizpide horiek kontuan hartu beharko ditu beti eta horiek betetzera joko du arian-arian, etengabe eta aurrera begira. Gainera, Administrazio Orokorrean Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpide berak izateak batasuna ematen dio gure Administrazioari, irudi bateratua eta kalitatezkoa emanda

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak banan-banan garatuta datoz A Eranskinean, eta aurrekoekin alderatuz gero, badira zenbait berrikuntza. Hona hemen batzuk:

-Administrazioak jarrera aktiboa hartuko du, eta, lehen aldiz, eskua luzatuko du berarekin euskaraz ere harremanetan jarri ahal izateko, bai ahoz eta baita idatziz ere.

-Argi eta garbi azaltzen da zein hizkuntza erabili kasu bakoitzean: ahoz eta idatziz; herritarrekin, beste administrazioekin eta Eusko Jaurlaritza barruan.

-Lehentasuna ematen zaio sortze-lanari, alegia, gaitasuna duen orok bere lana euskaraz ere egiteari, baina itzulpenetara jo gabe.

-Idazketa elebidunaz hitz egiten da, korredakzioaz eta komunikazioen kalitateaz”.

- 1/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 3koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabaki bat argitaratzeko dena. Erabaki horren bidez, V. Plangintzaldiko (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeari buruzkoa.

V. Plangintzaldiko txostenean jarraibide orientagarri gisa azaltzen dira Hizkuntza irizpideak, hain zuzen ere III.2 atalean.

“III.2. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak : . Hemen jasotakoak bi hizkuntza ofizialen erabilerako jarraibideak dira. Araubide orokorra da eta prozesuaren helmuga markatzen du. Eusko Jaurlaritzako sail guztientzako eta erakunde

autonomiadun guztientzako hizkuntza irizpideak finkatu nahi ditu. Irizpide orokor horiek zehazteko, ordea, sailetako eta erakunde autonomiadunetako erabilera planak garatuko dira; hor deskribatuko dira zehatz-mehatz araubide honetan modu orokorrean ezarritakoak. Erabilera plan horietan gauzatu eta gorpuztuko dira, hortaz, araubide honetako irizpide nagusiak eta planaren ebaluazioa egiten den bakoitzean irizpide hauek zenbateraino betetzen ari diren aztertuko da.”

- Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta Plan Nagusia: VI. Plangintzaldia (2018-2022).

Sail bakoitzeko Hizkuntza irizpideak funtsezkotzat jotzen ditu txosten horren *Plangintzaldi berrirako gida-lerroakataleko 10. puntuak*:

“10: Herri-administrazioek onartuko dituzte euskararen erabilera normalizatzeko planak VI. Plangintzaldiaren lehenengo urtean, eta berdin egingo dute Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomiadunek ere. Bada, lan horretarako ezinbesteko gidari izango dira Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, planaren helmuga eta pausoak zedarrituko baitituzte (ikus http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Irizpideakeus.pdf HOEI 2007ko dokumentua); azken finean, Administrazioak ele bietan jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile, atal eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, alegia, noiz, zer eta norekin egin behar duen euskaraz edo gaztelaniaz.

Horrenbestez, IV. Plangintzaldian onartu ziren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan oinarrituta, erakunde bakoitzak zehaztuko du zein izan behar den bi hizkuntza ofizialen erabilera erakunde horretan. Bertan jasoko dira, besteak beste, hizkuntza ofizialak nola erabili ahozko harremanetan zein idatzizkoetan edo komunikazio telematikoetan; itzulpen irizpideak ere finkatuko dira, eta baita erregistroan, diru-laguntzetan, kontratazioetan edo erakundeak kudeatzen dituen argitalpenetan zer-nolako tratamendua emango diegun bi hizkuntza ofizialei ere. Hori guztia, errotulazioan, publizitatean edo ekitaldi publikoetan zein irizpide hartuko diren kontuan ahaztu gabe. Horretarako, sail bakoitzak egokitu behar ditu irizpideok bere egoera linguistikoaren arabera, eta ziurtatu, modu sistematikoan ziurtatu ere, horiek betetzen direla.”.

2. SAILEAN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EZARTZEKO BEHARRA

Lege-oinarrietan islatzen den legez, sailetako hizkuntza irizpideak funtsezko tresna dira, horiek ahalbidetu eta errazten baitute plangintzaldiaren diseinua. Ondorioz, beharrezkoa da hizkuntza irizpideok ezartzea; horretarako Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek izandako esperientziaz eta IV. Plangintzaldiko A eranskinaz baliatuko gara. Ondoren, plangintzaldia diseinatu eta egoki iruditzen zaigun eran zabalduko ditugu irizpideok.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK-LAN ETA JUSTIZIA

HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta Plan Nagusia: VI. Plangintzaldia (2018-2022) txostenak ezartzen ditu Lan eta Justizia sailaren euskara arloko xedea eta helburu nagusiak. 2018-02-28an onartu zuen Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak plana.

Honakoa adierazten du txosten horrek VI. Plangintzaldiko Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana atalaren 3. eta 4. puntuetan:

“3. PLANAREN XEDEA: Aurrerapauso sendoak ematea, Administrazio elebiduna, hots, bi hizkuntza ofizialetan normaltasunez lan egiten duena lortzeko; hori baita bidea herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko.

4. HELBURU NAGUSIA: Plan honen helburua da, plangintzaldiaren hasierako diagnostikoaren datuetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek herritarrekiko harremanetan hizkuntza eskubideak %100ean bermatzeaz gain, lan-hizkuntzan, euskararen erabilerari buruzko adierazleetan, gutxienez, 15 puntutan gora egitea plangintzaldiaren amaierarako (horretarako, hobekuntza tarterik gelditzen bazaie) eta, edonola ere, Jaurlaritzaren batz besteko hasierako mailaren gainetik jartzea”.

Ondorioz, **helburu bikoitza** du sailak: **osotasunean bermatzea herritarren hizkuntza eskubideak eta euskara lan Hizkuntza bihurtzeko aurrerapausoak ematea.**

-Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, bereziki zuzeneko arretan eta jendaurreko harremanetan.

Ez da nahikoa gure sailak euskaraz erantzutea gugana euskaraz jo dutenei. **Euskaraz egiteko gonbita luzatuko diegu** herritarrei, Eusko Jaurlaritzako gainontzeko sailei eta herri administrazioei.

Euskara nabarmenduko dugu komunikazio elebidunetan.

-**Euskara lan hizkuntza bilakatzeko pausoak** eman behar ditugu.

Euskalduntze prozesua bultzatzea da gure helburu nagusietako bat, eta horretarako euskararen erabilera sustatu behar dugu beste administrazioekiko harremanetan. Euskara administrazioan erabiltzen den Hizkuntza normal bat izatea da oinarritzeko xedea; ondorioz,

Jaurlaritzako beste sailekin ere erabiliko dugu euskara, baita erakunde autónomo eta herri administrazioarekin ere.

-Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten Lan eta Justiziako langileei bi hizkuntzetan aritzeko gaitasuna aitortuko diegu.

Zentzu horretan, etengabeko prestakuntza eta laguntza eskaini nahi du Euskara Atalak. Birziklatzeko ikastaroak eskainiko ditugu; trebetasun jakinen bat landu edota gabeziaren bat gainditu nahi duen langilea harremanetan jarriko da Euskara Atalarekin.

-Kalitatezko komunikazioa bermatzeko ahalegina egingo dugu.

1- AHOZKO KOMUNIKAZIOA

HIRITARREKIN

-Administrazioko langileek beti egingo dute **lehen hitza euskaraz**.

Elkarrizketa: solaskideak aukeratzen duen hizkuntzan.

-**EUSKARAZKO ZERBITZUA BERMATUKO DUGU:** Langileek ezingo diote eskatu herritarrari hizkuntza batean edo bestean jarduteko.

Harrerako langileak ez badu bere burua herritarrarekin solasa jarraitzeko gai ikusten, **PROKOLOA aplikatu** eta euskaraz dakien lankide bati eskatuko dio bezero euskalduna artatzeko (AURREZ AURRE ZEIN TELEFONOZ).

Euskara jakin bai baina ohikotasunez erabiltzen ez duten langileen kasuan, solasaren jarraipena euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute, eta langile horren Zuzendaritzari egokituko zaio hori zaintzea.

-Hartzaile jakinik gabeko mezuak euskaraz eta gazteleraz, hurrenez hurren.

JAURLARITZAREKIKO ETA BESTE ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

-Lehen hitza beti euskaraz

-Euskaraz jarraitzen ahaleginduko gara, baldin eta solaskidea euskalduna bada.



2- IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

SAILAK HASTEN DUENEAN HARREMANA

EUSKARAZ: euskaraz jasotako idatziari edo harremana euskaraz izatea nahi duela jakinarazi duenari (berdin dio herritarra, beste administrazio bateko langilea edo Eusko Jaurlaritzako langilea izan).

ELE BIETAN: Gainerako guztietan, baina euskara hautatzeko aukera emango diogu hartzaileari ohar baten bidez.

KOMUNIKAZIOARI ERANTZUN

EUSKARAZ: euskaraz jasotako idatziari.

ELE BIETAN: Agiri estandarizatuei (inprimakiak, bertaratze agiriak, egiaztagiriak) eta ele bietan jasotako idazkiei.

GAZTELANIAZ: Gaztelaniaz jasotako idatziari. Hala ere, hurrengo komunikazioetan euskara hautatzeko aukera emango diogu hartzaileari ohar baten bidez.

BI HIZKUNTZETAN LAN EGIN

-Bi hizkuntzetan prestatu beharreko idazkietan, bi bertsioak batera sortuko dituzte langile batek edo bik, elkar hartuta. Horretarako, IVAPen estilo liburuan jasotako irizpideak jarraituko dira.

PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

--Espedientea edo prozedura bultzatu duen pertsonak hautatu duen hizkuntzan. Hala ere, beste alderdien Hizkuntza eskubideak ere errespetatu beharko dira, eta horretarako behar diren bitartekoak erabiliko dira.

KOMUNIKAZIO TELEMATIKOAK (Tramitazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoak)

-Herritarrak aukeratutako hizkuntza erabiliko da: euskaraz edo gaztelaniaz.

-Ele bietan jasotzeko aukera emango dugu, tramitazioaren azken komunikazioa testu estandarizatua denean.

3- EUSKARA NABARMENTZEKO NEURRIAK

KOKAPENA

Hitzak direnean: euskara aurrean edo gainean.

Orrialde bereko zutabeak direnean: euskara ezkerrekoan.

Orrialdeka antolatzen denean: euskara eskuinekoan.

Testutik kanpoko osagai komunak: euskaraz.

TIPOGRAFIA

Euskarak letra handiagoa edota lodiagoa.

4- ITZULPEN IRIZPIDEAK

IRIZPIDE OROKORRAK

- Idazkiak euskaraz sortzeko gaitasuna lortzea da helburua, ez idazkiak itzultzeko gaitasuna lortzea.

Itzulpena baliabide soil bat izan behar da, ez dokumentua bukatutzat emateko eman beharreko pausua.

-Itzulpenen gaineko irizpide orokorrak Lan eta Justizia saileko Zerbitzu Zuzendariaren **1/2017 zirkularrean jaso dira, horrek ezartzen baitu Euskara-Gaztelania itzulpenen prozedura.**

KONTUAN HARTZEKOAK

-Lehentasunezko komunikazioak (ofizioak, gutunak...) ezingo dira ezinbestean itzuli, baldin eta komunikazio horiek sortu behar dituenak beharrezko prestakuntza jaso badu (hau da, 2.HE, 3.HE edota 4.HE egiaztatua badu).

-Beharrezko prestakuntza jaso duten langileen kasuan, hona hemen langileak euskaraz sortu/euskaratu beharreko hitz kopurua:

2.HE: Testu arrunt eta laburrak (mezu elektronikoak, ofizio laburrak), data-tokiak, etab.

3.HE: 500 hitz arteko testuak.

4.HE: 1500 hitz arteko testuak.

Langileak sortu beharko ditu kopuru horretatik beherako euskarazko testuak, ezingo ditu itzultzera bidali.

Beharrezko prestakuntza duen **langileak testua osorik euskaraz sortu badu (3. HEren kasuan 500 hitzetik gora, eta 4.HEren kasuan eta 1500 hitzetik gora), gaztelaniaz itzultzeko aukera emango zaio.**

-Ezinbestekoa ez bada, kanpotik jasotako dokumentuak ez dira itzuliko. Bestelakoetan, edukiaren laburpena egingo du (ahoz edota idatziz) nahikoa euskara gaitasun duen zerbitzuko langileren batek, eta hori ezinezkoa balitz Euskara Ataleko langilea arduratuko litzateke.

Idazkia teknikoki zaila izanez gero, (epaia, txostena, etab...) edukiaren zati erabakiorraren itzulpen laburtua egingo da, izapidetu behar duenak uler dezan.

-Arduradunen zein langileen ardura da ele bietan lan egiteak dakarren denbora aferaz ohartzea eta behar besteko epeak aurreikustea.

ZUZENKETAK/BERRIKUSKETAK

Honako hurrenkera jarraituko dugu:

1.Zerbitzuko lankideren batek.

2.Idazlagun zerbitzuak (IVAP).

3.Euskara Atalak.

5- ERREGISTROA

-Dokumentuen kontrola: Erregistroko aplikazioak jasoko du zein hizkuntzatan sartu edo irten den dokumentazioa.

-Dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan erregistratuko ditugu.

6- ETENGABEKO PRESTAKUNTZA OROKORRA

-Langileak beharrezko prestakuntza eta birziklapen laguntza jasoko du euskaraz zein gaztelaniaz kalitatezko komunikazioa lortzeko. Saileko langileen prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen saiatuko gara, IVAPein batera.

-Sailak erabaki ahal izango du prestakuntzako ekintza batzuk lehenik euskaraz eskaintzea euskara maila altua duten langileei.

-Oro har, prestakuntza kontuetan honako dokumentu hau aplikatuko da: *2/2018 zirkularra, 2018ko urtarrilaren 17koa, Lan eta Justizia saileko zuzendaritzarena, ikasketak eta beste prestakuntza-jarduera batzuk egiteari buruzkoa*. Honakoa ezartzen du aipatutako zirkularrak 4. atalean: *“Zenbait prestakuntza-ikastaro ordu-poltsatik kanpo geratuko dira, baina horretarako beharrezkoa da Zerbitzu Zuzendaritzak eskaera onartzea. Honako hauek dira aipatutako ikastaroak: Emakumeen eta gizonen arteko berditasunaren arloan Emakundek, IVAPe edota Eusko Jaurlaritzako Sailek antolatutako ikastaroak... Era berean IVAPe antolatutako Berriazko ikastaroak, alegia, erabilera planaren baitan langileen hizkuntza gaitasuna birziklatzera zuzenduak daudenak edota euskaraz sortzea ahalbidetzen duten ikastaroak”*.

-Langileen ahozko gaitasuna lantze aldera, langileen arteko mintzataldeak sortu eta dinamizatuko ditu Euskara Atalak.

-Langileak euskarazko baliabide informatikoetan trebatzeko ikastaro arinak antolatuko ditu Euskara Atalak.

7- BILERAK

BARNEKOAK

Lan eta Justizia sailak ahalegina egingo du pixkanaka lan-bileretan euskararen presentzia areagotzeko.

KANPOKOAK

- Ahalik eta bilera gehien euskaraz egiten saiatuko da Lan eta Justizia saila.

-Euskarazko komunikazioa bermatzerik ez dagoenean, gutxieneko hauek egingo dira euskaraz:

-Agurra.

-Aztergaien eta pertsonen aurkezpena.

-Bukaerako laburpena.

8- EKITALDI PUBLIKOAK

-Lan eta Justizia sailak ahalegina egingo du pixkanaka ekitaldi publikoetan euskararen presentzia areagotzeko.

-Ekitaldi publikoak behar bezala programatuko dira bi hizkuntza ofizialen ikuspegitik:

-Euskarazko jardun egokia bermatuko da ekitaldi publikoetan.

-Euskaraz jarduteko erraztasunik ez dutenek ere lekua Egingo diote euskarari euren agerraldi publikoetan.

-Zabaltzepenerako dokumentazio guztia: ele bietan.

9- PRENTSAURREKOAK

--Prensaurrekoetarako deialdi idatziak: ele bietan.

-Prensaurrekoetan zabaldu beharreko dokumentazio idatzia: ele bietan.

-Hedabideen aurreko agerraldi guztietan bermatuko da euskararen presentzia; Euskarazko komunikazioa bermatzerik ez dagoenean, gutxieneko hauek izango dira euskaraz:

-Agurrak

-Laburpenak.

10- SARE SOZIALAK

--Mezuak: ele bietan.

-Hurrenkera: Euskara aurretik joango da; ondotik gaztelaniazko mezua.

-Erantzunak: herritarrek erabilitako hizkuntzan.

11- TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

-Euskarazko bertsioa txukuna eta erabilgarria izango da, ez gaztelera-azkoaren egokitzapen hutsa.

-Kanpaina bereziak egingo ditu Euskara Atalak tresna eta aplikazio informatikoen euskarazko bertsioaren erabilera sustatzeko.

-3. HE eta 4. HE egiaztatu duten langileen kasuan, euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko zaie; horretarako, laguntza jasoko dute euren kabuz moldatu arte.

-Hiru urterik behin, berrinstalazioa egiten denean, euskarazko bertsioa erabiltzeko gonbidapena luzatuko diegu lanpostuko HE egiaztatu duten langileei.

12- INTERNET/INTRANET

-Edukiak euskaraz zain gaztelaniaz kontsultatu ahal izango dira.

-Webgunera sartzean euskara lehenetsiko da, eta ondoren hizkuntza aukeratzeko modua egongo da.

-Izapideak emateko aukera ematen badugu, euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

-Sailetik kanpoko edukiak webgunean edota intraneten txertatzen ditugunean, ahal den neurrian bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko ditugu.

-Bi hizkuntzen kalitatea zainduko dugu.

13- ERROTULAZIOA/OHARRAK

-Oro har: lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

-Egoitza zein lokal guztietan egon behar dute ele bietan, kanpoaldean zein barnealdean.

-Errotulu guztiak jarri behar dira ele bietan, finkoak zein aldakorrak.

14- EUSKARRI INPRIMATUAK/PAPER GAUZAK

-Paperezko zabalkunde-euskarriek ele bietan egon behar dute.

-Sailaren paperezko elementu guztiak ele bietan egongo dira: bisita-txartelak, zigiluak, fax-karatulak, gutun-azalak, etab.

15- ARGITALPENAK

- Ele bietan. Euskarak %50 hartuko du gutxienez.

16- IRAGARKIAK/PUBLIZITATEA

- Euskaraz: euskarazko hedabideetan.

-Euskaraz eta gaztelaniaz: gainerako hedabideetan.

Bi hizkuntzak euskarri berean ager daitezke, edo bakoitzak bere euskarria izan.

-Komunikazio kanpainak kontratatzen orduan, mezuak bi hizkuntzetan sortua behar du izan, hizkuntza batean funtzionatzen duenak bestean porrot egin ez dezan.

17- DIRU-LAGUNTZAK

-Hizkuntzen erabilera kontuan izango da diru-laguntzen arauetan, baldin eta hizkuntzaren erabilerak eragina baldin badu diru-laguntzaren xedean..

-Hizkuntza-irizpideak kontuan hartuko dira pixkanaka diru-laguntzak esleitzeko baldintzetan. Era berean, egiaztatu egingo da onuradunek bete beharrekoak betetzen dituztela; hala ez bada, neurriak hartuko dira hori zuzentzeko.

18- ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOAK

-Jaurlaritzaren kontseiluak 2016ko apirilaren 26an hartutako akordioa beteko dugu.

-Herritarrei zuzeneko arreta emango dieten zerbitzuen kontratazioari dagokionez, Sailahizkuntza baldintzak ezarriko ditu kontratua egikaritzeko orduan.